

| LAN BATZORDE IREKIAK | | | |
|-----------------------------|---|------------------------------------|-------------------|
| TALDEA | EUSKARA ETA KULTURA | | |
| IRAUPENA | Ordu eta erdi | EGUNA | 2020-02-12 |
| GAIA | Denetik | DEIALDIA | 19:30 |
| PARTE HARTZAILEAK | | | |
| Iñigo Igartzabal | Aratz Igartzabal | Ezin etorria adierazi dute: | Jon Sagarna |
| Blanka Lopez | Aloña Murua | Marian Bidegain | Ane Miren Aizpuru |
| Nekane Agirre | Eresti Oiarbide | Arantzazu Baztarrika | Leire Murua |
| Jokin Matxinandiarena | | Ainhoa Arratibel | |
| ERABAKIAK | | | |
| GAIA | EKINTZAK | | |
| Makilari | <ul style="list-style-type: none"> - Ez dakigu emakumeen inguruko gaietxoko berezia egin ala ez. Printzipioz, Agirineko bi lanak aparte jarriko ditugu, eta Eneritzi galdetuko diogu ea berea hor sartzeko modukoa ikusten duen edo ez. - Azalean Amairuko batailoia argazki zaharra eta berria jarriko dira. - Lan guztiak prest daude; bertsoa falta da. - Webgunean jarriko da argazki lehiaketan parte hartzeko galdetegia (gogorarazi egin behar zaie), eta Makilarian qr kodea eta lotura sartuko ditugu. Whatsappean ere horixe bera zabalduko dugu. E-postaz ere parte hartu ahalko da eta erantzuna Udaletxera eraman ere bai. lazko erantzunak sartu egingo dira argazki txikiak jarrita. | | |
| Udaberri kulturala | <ul style="list-style-type: none"> - 2018an 5.400 € gastatu ziren, eta 2019an 4.200 €. Antzerkietan sarrera kobratu zen (5€). - Aurreko bileran ez genuen aipatu, baina Jose Luis Ugarterekin ibilbideren bat egin daiteke. Maiatzaren 9an egitea proposatuko zaio (Ainhoa). <p>Igeren ibarra edo Igeribar ibarra: Izenak ondo dioen bezala, errotaz josita dago eta, nire iritzian, ez zegoen gehiago errekak ez zuelako gehiagorako lekurik. Hemendik ere Ormaiztegitik Oñati aldera zihoan erregebide zaharra igarotzen zen.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Artantxuriketa emanaldia: 550 € kobratuko dute, baina ekipoa jarri behar da (4 mikro diadema motakok; Aratzek hitz egingo du Asier Bidegainekin). - Zizelkariak: gazteei galdetuko diegu interesatuko litzaiekeen. Ostiralean dute bilera. - Aitzolen bandaren kontzertua: elizan baimena eskatu behar da data jarritakoan (Mari Joserekin hitz egingo du Erestik). Martxoaren 15ean. - Lemniskata zientzia erakusketa. Maiatzaren 4ko astean. Erestik deituko die. | | |

| | |
|-------------------------|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Artisten mahai-ingurua (maiatzaren 15ean, ostirala, 18:30ean). Eneritzek, Jokin Telleriak eta Pott Keramikakoek baiezkua esan dute. Erikek ezezkoa esan du eta Eneko Galdosi esan zaio. Ahal badu baietz; aste honetan baieztatuko duela. - Amets Arzallusen "Minan" liburua irakurriko dute, irakurleen txokoan. Martxoaren 12an etorriko da horren inguruan hitz egitera. - Leintz-Gatzagara irteera: Blankak erreserbatuko du gidarekin. Udalak autobusa lotu eta ordainduko du. Maiatzaren 30ean. Izena ematea apirilaren 30era arte. - Medikuntzaren inguruko hitzaldia asteazkenen batean. Ez dugu lortu Felixekin hitz egitea. Aratz berriro saiatuko da. - Ikastaroak: Sukaldarien ikastaroa Eider eta Mikelekin. Asteazken zehar arratsaldean. Bilera ondoren hitz egingo dugu eurekin. - Irene prest dago beste 3 bat lagunekin umeentzako jolasak antolatzeko. - Antzerkia (Eresti saiatuko da lotzen; julen@txalo.com): <ul style="list-style-type: none"> 1- Erradikalak ginen 2- Loosers 3- Moko zorrotza 4- Zoaz pake santuan - Panfletoaz aparte, Ametsen ekitaldirako, gerraren ingurukorako... kartelak egin eta zabaltzea komeni da. |
| Beste gai batzuk | <ul style="list-style-type: none"> - Hartu-eman ikastaroak: Ideiak pentsatzen hasi behar dugu. - Kale-antzerkirako dirulaguntza eska daiteke martxoaren 31 baino lehen. Festetarako antzerki bat aukeratu dugu, eta dirulaguntza horretan sartu. Aukeraketarako, bakoitzak gustuko duena proposa dezala Whatsapp taldean. Erestik zerrenda luze bat bidaliko du aktarekin batera. (Ainhoak jasoko ditu proposamenak eta lotuko du emanaldia) |

HURRENGO BILERA:
Ekainaren 22an , 19:00etan.